



## **XXVIII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA**

### **EPAIMAHAIAREN AZKEN ERABAKIA:**

XXVIII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- Mahaiburua: Ainara Rodríguez, Andoaingo Euskara zinegotzia.
- Mahaikideak: Goio Arana, Allande Boutin, Marijo Deogracias eta Idurre Eskisabel.
- Idazkaria: Arantza Aguado.

Epaimahaiak ondorengo azken erabakia hartu du, aho batez.

## **AZKEN ERABAKIA**

### **BALORAZIO OROKORRA**

Rikardo Arregi Kazetaritza Sari honen XXVIII. ediziora 25 lan aurkeztu dira guztira, 5 kazetari berria atalera eta gainontzeko 20ak sari nagusira. Hala, lan horien guztien artean egin du hautua epaimahaiak eta, ez da batere lan erraza izan, bere sorreratik sari honen oinarrietan azaltzen den legez, aurkeztutako lanak komunikazio prestu eta modernoaren isla baitira, kalitatekoak eta garaian garaiko beharrianetara egokituak.

Esker ona azaldu nahi die epaimahai honek lehiaketara aurkeztu diren kazetari guztiei. Zalantza handiak sortu zaizkigu sariak hautatzeko garaian, oro har, maila oneko lanak aurkeztu direlako eta, gainera, genero eta formatu desberdinekoak: erreportajeak, elkarrizketak, kronikak, ikus-entzunezkoak..., komunikabide nazional zein herri komunikabideetan argitaratuak. Aniztasun horrek bereziki zaildu du lanen arteko alderaketa egitea, eta lan bikainak geratu dira bahean.

Aurten nabarmentzekoa da sari nagusia eta aipamen berezia elkarrizketa generokoak izatea biak, nahiz eta gehienetan, kazetaritza lan handi eta osatuetan pentsatzen dugunean buruak erreportaje luzearen edo kronika sakonaren generoetara egin jauzi segituan. Baina elkarrizketa, 'besteak' zein 'bestek' ezagutzeko genero aproposa da, eta, horrenbestez, 'besteak' zein 'bestek' jarritako ispiluaren bidez nor bere burua ezagutzekoa. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da elkarrizketatzaile lana egokiro egitea: aldez aurretik



elkarrizketatua ahalik eta ondoen ezagutzeko lana hartzea, azalekoak ez ezik mamia ateratzeko, eta, era berean, elkarrizketaren unean presarik gabeko entzule adi eta arretatsu izatea. Bai eta ere mintzakide eta elkarrizketatzaileak aurrez aurre izatea, zuzenean hitzak biltzeko. Azken batean, elkarrizketatuaren onena irtenarazteko emagin batzuetan, hark ezkutuan gorde nahi dituenak azalarazteko xaxatzaile bestetzuetan. Egungo lasterketa teknologikotik aldendu, eta patxadaren artisau izatea, nolabait. Alde horretatik, eskertzekoa da dena arrapalada den egunotan 'Argia'-k eta bereziki 'Jakín'-ek solas lasaiaren aldeko apustua egitea, besteak beste, gainerakoan, gure kazetaritza eskaintzan hain murriztuz den elkarrizketa biografikoaren genero aberatsari bide emanez.

## **1.-EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA.**

Sariduna: **Amaia Gurrutxaga.**

Saritutako lana: 212 zenbakiko *Jakin* argitalpenean Kristiane Etxaluz Etxegarairi egindako elkarrizketa.

Saria: diploma eta Xabier Lakaren serigrafia.

Hirurogeita sei orrialdetan zehar kontaktzen digu Kristianek bere bizi-esperientzia, Amagoia gidari. Elkarrizketa-biografia ez da oso ohikoa gaur egungo kazetaritzan, horregatik epaimahai honek biziki eskertu nahi du horrelakoez gozatzeko aukera ematen diguten argitalpenen ausardia.

Emaitza ona, oso landua eta sakona eskaini digu Amagoiak, baina,aldi berean, irakurterraz; elkarrizketatuaren bizipenak kontakizun harilkatu eta ordenatu batean gidatzen baititu, eta primeran lortzen du transmititzea Kristianek duen bizi-gogoia. Era berean, azpimarratzekoa da publikoarentzako erabat galdutako pertsonaia berreskuratzen laguntzen duen lana baita.

Ezin dugu aipatu barik utzi, elkarrizketatuaren euskararen aldaerari eutsi izanak testigantzari ematen dion hurbiltasuna.

## **2.-KAZETARI BERRIA SARIA.**

Sariduna: **Unai Oiartzun.**

Saritutako lana: *Irunero* udal aldizkarian argitaratutako erreportaje sorta.



Saria: 3.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroit-ikurra.

Tokiko hedabideak izan dira kazetari berri asko lanean sartzeko lehenengo atea, eta horixe izan da Unairen kasua: *Irunero* udal aldizkariaren atetik sartu baita kazetaritza munduan. Eredu horretan ibiltzen diren kazetari gazteen izaera eta moduak ondo azalarazten ditu: inguru hurbileko istorio eta herritarren bizipenak kontatzea, gertutik, gero ikuspegia irekitzeko. Testu motzetara egokitu behar izaten du kontakizuna, baina oso era egokian moldatzen da, gai batzuek eskaini dezaketen sentsazionalismoan erori gabe, duintasunez jorratzen ditu gaiak.

Gainera, azpimarratu behar dugu lan duin hori inguru zailean egin duela, *Irunero* udal aldizkarian maketazioa eta irudia ez baitira edukia bezain beste zaintzen. Hala ere, Unairen lumak lortzen du, behin aukera emanda, istorioan murgiltzea. Hori dela eta, epaimahaikideok deia luzatu nahi genioke *Irunero* aldizkaria egiten duen lantaldeari aldizkariaren itxuraldaketa hurrengo ikasturterako erronka izan dadin. Izan ere, irudiak geroz eta garrantzia gehiago duen gizarte honetan, ezinbesteko bilakatu da irakurlearen erakarmena lehenengo kolpetik bertatik lortzea. Unai bezalako berri emaitzen lana erakargarriago egingo luke eta Irungo euskarazko kazetaritzari prestigio emango lioke.

### **3.- RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA.**

Sariduna: **Sustrai Colina.**

Saritutako lana: ARGIA aldizkarian argitaratutako elkarrizketak.

Saria: 9.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroit-ikurra.

Elkarrizketari ekiteko modu berezi eta originala erakutsi digu Sustraik bere elkarrizketetan. Hasieratik bertatik, aipamen literarioei nahiz hitz-jokoei helduz izenburuetan, irakurlea erakartzen du eta hauen interesa berehala pizten du. Sarrera hitz erabat deigarriak darabiltza; baliteke bertsolari senak lagundu izana hasiera horietan, nahiz elkarrizketetan planteatzen dituen galderak egiteko garaian. Izan ere, galderak egiteko orduan erabiltzen dituen estilo, erreferentzia eta burutazioak anitzak eta aberatsak dira oso.

Era berean, trebea da Sustrai hizkuntzarekin jolasten, eta hainbat modu erabiltzen du elkarrizketatuen erantzunak azalertzeko, tarteka beraiengan



harridura sortzeraino. Gertutasunetik aritzen da beti, baina distantzia mantentzea lortzen du, lerratu gabe.

Lehiaketara aurkeztutako elkarrizketa sortan anitzak izan dira pertsonaiak: Alda Facio, Jann-Marc Rouillan, Andoni Lubaki, Susan George, Andoni Olariaga... Eta elkarrizketak oso luzeak izan gabe ere, guztiei etekin handia atera die.

Elkarrizketen atzean dagoen aurre-lanketa handia sumatzen da: irakurleontzat hain ezagunak ez diren elkarrizketatuak ezagutzera eman arte lantzen ditu; ezagunak direnei, berriz, beste ertz bat ateratzeko gai izan da.

Aho batez harturiko Azken Erabakiaren akta hau epaimahaikide guztiok sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hamaseiko ekainaren 1ean.

Ainara Rodriguez

Goio Arana

Allande Boutin

Marijo Deogracias

Idurre Eskisabel

Arantza Aguado